


# Sare eta atsoa



**B**azen behin, orain dela urte asko Gipuzkoako herri txiki eta polit batean, bost urte zeuzkan neskato bat. Neskatoa Sare deitzen zen, baserri txiki eta zahar batean bizi zen, bere familiarekin. Baina nahiz eta baserria zaharra izan, beti zegoen loreekin dotore apainduta. Adibidez: leihoetan krabelinak zeuzkan leihoak zabaldu orduko usain miresgarria zetorren, balkoietan arrosa ipotxak eta baratze ondoan liliak.

Egun batean bere familiarekin haserretu ondoren, Sare etxeko atarian eseri zen negarrez. Atariko aulkian eserita eta negarrez zegoela, atso bat hurbildu zitzaion eta zer gertatzen zitzaion galdetu zion. Sarek gertatutakoa kontatu ondoren atsoak istorio bat kontatu zion.

- Begira Sare, ni txikia izan nintzenean nire familiarekin haserretu nintzen eta etxetik ihes egin nuen, gauak eta egunak pasatu nituen etxetik kanpo, ez neukan janaririk... gauetan lo egiteko oherik ere ez, hotza egiten bazuen zuhaitz ondoan babesten nintzen eta horrela egon nintzen hiru egun.

Atsoa isildu zen eta orduan Sarek galdetu zion:

- Hori da istorio guztia?
- Ez - erantzun zion atsoak, begiak negar anpuluez beteta.
- Begira Sare, laugarren egunean esnatu nintzenean, nire ondoan emakume eder eta polit bat zegoen kantari, ez nuen ezagutzen abestia baina oso alaia eta gozoa zen bere ahotsa. Horrelako batean, emakumea isildu zen eta galdetu zidan zer egiten nuen baso hartan bakarrik.